

B.19. MARURI-JATABE

B.19.1. Asteintza Nagusi baserria

Zuzendaritza: Román Rodríguez Calleja
Finantzazioa: Herri Lan eta Garraio Saila.
Bizkaiko Foru Aldundia

B.19.1. Caserío Asteintza Nagusi

Dirección: Román Rodríguez Calleja
Financiación: Dpto. de Obras Públicas y
Transportes. Diputación Foral de Bizkaia

Plans for building the new Igartua-Asteintza-Maruri highway that affected the whole of the Asteintza Nagusi farmhouse made it possible to carry out an architectural-archaeological study of the building's enclave which dates from the 16th century. The archaeological intervention has been of great help in understanding the farmhouse's history.

Igartua-Asteintza-Maruri²⁷ errepide berria eraikitzeke proiektuaren baitako esku-hartze arkeologikoaren proposamenen planteatutako neurri zuzentzaileek eragindako lan diziplina anitzaren baitan kokatu behar dugu burura eramandako esku-hartzea.

Lan honetan eraikin hau ebaluatu eta ezagutarazi nahi dugu eraikin fisikoa den aldetik eta kokaleku historikoan dagoen aldetik. Lehenengo une batean leku hau okupatuko zuten pertsonak, higiezina eraiki zutenak eta orain arte bertan bizi izan direnak ezagutu diturube honek denboraren joanean.

Guri bigarren helburuari dagokion lana egokitu zaigu, hots, baserria dagoen espazioaren historia berreraikitzen saiatuko gara. Arkitekturari dagokion atala berex garatu dute gaian adituak direnek.

Berex egindako lanak izan arren, esan beharrik ez dago besteak egindako lana ulertzeko premia genuela alde biek. Arkitekturaren errealtatea eraikina okupatu zuten biztanleen bizimoduaren isla fisikoa da. Geure begiek egun ikusten dutena argitzen, erkatzen, egiazta-tzen edo baztertzen saiatzen gara arkeologiatik. Lurpean ezkutatzen diren errealtateek argitu egin ditzakete lehen une batean ezin ikus zitezkeen, ezezagunak ziren edo nekez ulertzen ziren eraikuntza prozesuak.

Landa-lanak hastean egoki iritzi genion aztertu beharreko espazioak egituratutako eta lau hormek mugatutako eremu gisa (bizitoki uler bedi) ez baizik eta denboraren joanean itxiturak bezalako aldaketak –horiek ez dute zertan bizitoki bakarrari dagozkion aztarna arkeologikoak ezkutatu– bizi izan dituzten eremu ireki gisa bereizteari. Honenbestez, Giro esango diegu geuk aztertutako gelei. Zorupean aurkitutako elementuen interpretazioak eragin du izen hori, elementu horiek egungo espazio/bizitokiarekin zerikusia duten une edo erabilera ez baizik eta egungo arkitekturaren mugetara mugatu litezkeen, edo ez, aztarna arkeologikoak eskaintzen dituen eremua baita.

La actuación que se ha llevado a cabo está enmarcada dentro de un trabajo multidisciplinar, motivado por las medidas correctoras planteadas en la propuesta de actuación arqueológica dentro del proyecto de ejecución de la nueva carretera Igartua-Asteintza. Maruri.²⁷

En ese trabajo se pretende dar a conocer y evaluar al edificio tanto como un ente físico constructivo, como enclave histórico. Con una vida ligada tanto a las personas que pudieron ocupar en un momento primigenio este lugar, como a aquellas que lo levantaron y habitaron hasta el momento presente.

La parte que nos ha tocado es aquella ligada a la segunda de las pretensiones, la reconstrucción histórica del espacio donde se encuentra levantado el caserío. El apartado puramente arquitectónico se ha desarrollado de manera independiente por especialistas en la materia.

Pese a tratarse de trabajos elaborados por separado no hace falta decir la necesidad mutua de comprender el trabajo realizado por el otro. La realidad arquitectónica es un reflejo físico del modo de vida de los habitantes que lo ocuparon. Desde la arqueología se pretende dilucidar, contrastar, confirmar u objetar sobre lo presente, sobre lo que nuestros ojos ven. Las realidades ocultas bajo el subsuelo pueden esclarecer procesos constructivos que no se contemplaban en un primer momento, que se desconocían, o también que difícilmente se comprendían.

Al comenzar el trabajo en campo se creyó oportuno diferenciar los espacios a actuar no como áreas estructuradas y diferenciadas por cuatro muros delimitadores (léase habitaciones); sino como zonas abiertas que han sufrido modificaciones a modo de cerramientos a lo largo de su existencia, y que no tienen por qué enmarcar evidencias arqueológicas unihabitacionales. De esta manera, las diferentes estancias sobre las que se trabajó se han denominado Ambientes. Esta denominación viene motivada por la interpretación de los elementos descubiertos en el subsuelo, no como objetos afines a un momento o uso relacionado con el espacio/habitación en planta presente, sino como área en la que se dan evidencias arqueológicas que pudieran, o no, circunscribirse a los límites arquitectónicos actuales.

²⁷ Argitalpen honetako hurrengo kapituluaren argitaratutako izaera orokorreko esku-hartzearen baitan egindako azterlana.

²⁷ Estudio enmarcado en la intervención de carácter general publicado en el artículo siguiente de esta misma publicación.

Eremu horien deskripzioa errazteko eta erregistro arkeologikoa hobeto dokumentatu ahal izateko, zenbaki bana eman genion aztertutako espazio bakoitzari. Hortaz, honako Giro hauek dauzkagu: 1. Giroa –Etxebizitzako ezkaratza, ekialdean–, 2. Giroa –mendebaldean–, 3. Giroa –etxebizitzako sukalde, mendebaldean– eta 4. Giroa –sukaldearen iparraldeko gela, erabilera ezezaguneko–.

Esparru geografiko eta historikoan ongi kokatzeko, esan dezagun Butroe ibaiaren eta ibaiadar txikien jariatzeak eragindako alubioizko deposituen eremuetan dagoela baserria.

«Multzo ireki eta barreiatu» deitu lurralde okupazioaren balizko ereduari erantzuten dio haren kokalekuak; aipatu ereduak zehaztuko zuen Asteintzako baserri aldean.

XVI. mendearren lehen erdialdean kokatzen da, zehazki 1540. urte inguruan, baserri familiabakarraren jatorria. Orduan sortuko zen gotiko-errenazentista deitu eredu arkitektonikoa, laborari eta abeltzain bizkaitarrak etxebizitza duin bat izateko eta azienda sasoi jakin batzuetan ukuiluratzeko denbora eta dirua inbertitzen hasi ziren garaian, hori guzti hori orduan bizi zen oparaldi ekonomikoaren eta gizartearen egoera baketsuaren erakusgarri. Orduan abandonatuko zuten etxolen habitata, eta orduan sortuko zen baserria bera.

Egituraren izaeraren gaian sartu gabe, jatorrizko baserria, denboraren joanean ezagutuko zituen aldaketekin batean, «bizkaitar mota» gisa katalogatuko zen: ataria zuen eta goiko itxurak zurezkoak zituen, barneko egitura haritz-zurez egina zuen, pieza bakarreko paldoekin, gatzariek eta zehar-hagekin, eta estalkiko zubi, uhal, tirante eta kontra-uhalekin batean.

Gerora aldaketa arkitektoniko batzuk gertatuko ziren. Esate baterako, ataria hegoalderantz handitu zuten –kronologikoki XVII. mendean kokatu dezakegu–. Aldaketa horietako batzuk XVI. mendeko baserriaren zurezko elementu berrerrabiltan ere hauteman ditzakegu, baserrian gerora egindako handitze-lanetan baliatu baitzituzten elementu horiek.

«Kirurgia operazio» sorta horrek eraikina etxebizitza bitan banatu zutenean jo zuen gailurra. Etxebizitza biak ia erabat simetrikoak izango ziren («familia birenitzako etxe» ere deitua da eredu hori). Obra hori 1840. urtean eraman zuten burura, eta era berean urte horretan berreraiki zuten ukuilua Espainiako Gerra Zibilean zehar kalte handiak jasan zituelako eta, segurasko, horiei zegozkien elementu batzuk suntsituta gertatu zirelako.

Hain zuzen ere eraikin horixe da, jada aro garaikidean gertatuko ziren aldaketak tarteko, geure egunetara iritsi den higiezin eta lan arkeologiko hauen xede izan dena.

XVI. mende aurreko eraikinari buruzko idatzizko erreferentziarik ez dagoenez, esku-hartze arkeologikoa oso tresna baliagarria da haren historia zaharrean dauden hutsuneak betetzeko.

Horrekin guztiarekin, eraikinean esku-hartze arkeologiko bat burura eramateko argudioak bi izan dira esan genezake:

1) Zorupen Asteintza Nagusi baserriaren konfigurazio arkitektonikoaren tarte kronologikoarekin bat

Para facilitar la descripción de estas áreas y para documentar mejor el registro arqueológico se procedió a la numeración de los espacios intervenidos. Así nos encontraríamos con un Ambiente 1 –zaguán de la vivienda ubicada geográficamente al este–, un Ambiente 2 –al oeste–, un Ambiente 3 –cocina de la vivienda localizada al oeste, y por último un Ambiente 4 –habitación de uso desconocido al norte de la cocina

Para ubicarnos en un marco geográfico e histórico, hay que señalar que el caserío se sitúa en terrenos de depósito aluvial originado por las escorrentías del río Butrón y pequeños afluentes.

Su ubicación responde a un posible canon de ocupación del territorio denominada «enjambre abierto y disperso», que definiría la barriada de Asteintza.

El origen del caserío unifamiliar se lleva a la primera mitad del siglo XVI, hacia el año 1540, más exactamente. Es entonces cuando surgiría el modelo arquitectónico denominado gótico-renacentista, época en la que los labradores-ganaderos vizcaínos comienzan a invertir dinero y tiempo en una casa digna y a estabular estacionalmente el ganado, fruto todo ello de la bonanza económica y del estado de paz social. Es en ese momento cuando se abandonaría el hábitat de cabañas y surgiría el caserío como tal.

Sin entrar en materia de carácter estructural, el caserío originario, con sus diversos cambios a lo largo de su vida, se catalogaría como del «tipo vizcaíno», caracterizado por tener soportal y cerramientos superiores de madera, del que se destaca la estructura interior de madera de roble con postes enterizos, jáceñas y carreras, junto con el sistema de puentes, correas, tirantes y contra correas de la cubierta.

Posteriormente se producirían cambios arquitectónicos. Estos son identificables, por ejemplo, en la ampliación del pórtico hacia el sur –cronológicamente atribuible al XVII, así como en elementos de madera del caserío del XVI reubicados en ampliaciones posteriores del caserío.

Esta serie de «operaciones quirúrgicas» tuvieron como momento culmen la división del edificio en dos viviendas con una simetría casi perfecta entre ellas (también llamada «bifamiliarización»), llevada a cabo en 1840, así como la reedificación de la cuadra debido a afecciones producidas durante la Guerra Civil Española, y que minó, posiblemente en parte, elementos alzados.

Es este edificio, con posibles modificaciones ya ligadas a un momento contemporáneo, el que ha llegado hasta nuestros días y sobre el que se ha efectuado el trabajo arqueológico.

La ausencia de referencias escritas al edificio antes del siglo XVI hace de la actuación arqueológica una herramienta válida para rellenar los huecos vacíos en su vieja historia.

Con todo ello se puede decir que han sido dos los puntos argumentales para llevar a cabo la intervención arqueológica en el edificio:

1) Determinar la presencia o ausencia en el subsuelo de cualquier evidencia arqueológica que pudiera corresponder con el mismo tramo cronológico que



Asteintza Nagusi baserria. Beheko su biak. 3. Giroa.

Caserío Asteintza Nagusi. Los dos fuegos bajos. Ambiente 3.

etor litekeen edozein aztarna arkeologikoren presentzia edo absentzia egiaztatzea bila genuen.

2) Baserria eraiki zen orubearen ustezko bilakaera bereziaren nondik norakoak argitu nahi genituen, baserria eraiki aurreko uneei lotutako ondare arkeologikoa, baserriaren aurreko etxola izan zitekeenaren ondarea, agerian uzteko. Horrenbestez berreraikiko genuen baserriari leku egiten dion eremuaren historia.

Helburu horiek bete ahal izateko, ondoz ondo etorriko ziren bi fase edo alditan eraman genuen burura esku-hartze arkeologikoa. Bigarren fase hori, esku-hartze arkeologikoaren proposamenetan zehaztutako lanetan zehar lortutako emaitzen zuzeneko ondorioa izan zen.

Eraikinaren arkitektura ulertu ahal izateko, sukaldeak eta erabilera ezezaguneko gelak hartzen duten espazio osoa aztertu genuen. Ageriko elementu batzuk oso egoera kaskarrean zeuden arren, egoki iritzi genion arkitekturaren mugetaraino esku-hartzeari. Izan ere, mendebaldeko itxura horman bideratutako zimentarria nolakoa zen argitu nahi genuen, baita suhesiarena egiten zuen hormarekin eta eraikina barrutik banatzeko beste elementuekin zuen harremana ere.

Positiboa da burura eramandako esku-hartze arkeologikoaren irakurketa, baserrian okupazio oso bizia izan zela iradokitzen duten ezin konta ahala hondakin aurkitu baikenituen. Alde batetik, ebaki sorta bat dugu, eta bestetik, eraikuntza izaerako eta izaera funtzionaleko beste egitura sorta bat.

la configuración arquitectónica del caserío de Asteintza Nagusi.

2) La evolución particular que cabría referir para el solar en el que se erigió, descubriendo un patrimonio arqueológico ligado a momentos previos a la edificación y que pudieran identificar la cabaña previa al edificio. De tal manera se realizaría una reconstrucción histórica del paraje en el que se enclava.

Para dar cumplimiento a tales fines, la actuación arqueológica se acometió en dos fases consecutivas, caracterizada esa segunda por ser consecuencia directa de los resultados obtenidos durante los trabajos que se definieron en la propuesta de actuación arqueológica.

Para la comprensión arquitectónica se trabajó sobre toda el área que ocupan los espacios de cocina y habitación de uso desconocido. A pesar del mal estado de algunos elementos alzados se creyó oportuno intervenir hasta los límites arquitectónicos. Con ello se pretendía dilucidar el tipo de cimentación ejecutada en el muro de cierre al oeste, así como su relación con el muro cortafuegos y el resto de elementos divisorios.

La lectura de la actuación arqueológica que se puede hacer es positiva en el hecho de haberse localizado una innumerable cantidad de restos que denotan una ocupación intensa en el caserío. Nos ha mostrado por una parte una serie de cortes, y por otra una serie de estructuras tanto de carácter constructivo como funcional.

Baina, aurkikuntza guztiak interpretatu daitezke? Hasiera bat eta aurreremendu bat zehazten dituen bilakaera kronologiko bat identifikatu dezakegu haietan?

Ikertutako giroak aztertzen baditugu, aurkitutako hondakinak egungo baserriaren egiturara mugatzen direla ikusten dugu, guztiak bat izan ezik, azken hori 2. Giroko lau paretetatik haratago garatzen baita. Su-hesiarena egiten duen hormaren zimentarriak nahasitako ebaki sortak sorrarazten digun arazoa dugu esku artean. Hemen nahasketa hori zenbaterainokoa den ikusi beharko genuke, itxura batean zentimetro gutxi batzuk baizik ebakitzen ez dituela ematen baitu. Eta «ematen baitu» diogu su-hesiarena egiten duen hormaren iparraldeko espazioa ebaluatu ez dugunez ezinezkoa zaigulako norabide horretan luzatzen dela ziurtatzea zalantzarri zirrikitu bat utzi gabe.

Aurkikuntzak egungo gelen espazioetara mugatzeaz gain, betiere zimentarriak egokitzeko erretenek hondakin arkeologikorik nahasi ez dutenean, 1., 2. eta 4. Giroetan aurkitutako aztarna gehien-gehienak giroen erdialdean eta haien luzera osoan topatu genituen. Bestalde, aipatu hondakinei leku egiten dien 1. eta 2. Giroko topografiak gainazal ahurra eratzen du, eta goiko aldeek bat egiten dute aipatu gelen perimetrotan ekialdeko eta mendebaldeko hormen oinarriarekin; hain zuzen ere giro horien gibelaldean identifikatzen da hondakinen dentsitate handiena. Eta hori bila ez zen zerbaiten emaitza izan daiteke, baina bitxia da inolaz ere.

4. Giroaren kasuan ere erdiko ardatz luzean dokumentatu genuen aztarna kopururik handiena, ez ordea maila geologikoak aurreko giroetan eraturako gainazal ahurra. Baina datu hori zuzendu beharra dago, 4. Giroan ohalezko zorua paratu ahal izateko gainazal horizontala lortzeko maila geologikoa berdindu baitzuten. Lan mota horrek, agian, betikoz galaraziko zuen substratu geologikoak eratuko zuen balizko gainazal ahurra. Ezin argitu dezakegu kontu hori.

Leku egiten dieten eremuaren arabera, interesgarriak dira aztarnetan nabari diren aldeak. Esate baterako, 1. Giroan ebaki moldekoak eta 1. Egitura deitua dira aztarna urri horiek. Egitura hori hesola txiki batzuek eratua da, lerrotatuta daude irudi obalatu bat sortuz. 2. Giroan aztarnak anitzagoak dira, badira hesolak, zutoin-zuloak eta, batik bat, besteetan aurkitu ez genuen zerbait: ebakietan oinarritutako euskarri-egiturak. Ondoko 3. Giroan, beheko suen bi egitura, bi zulo baino ez –haietako bat hesola bati leku egiteko– eta paldo bati eusteko euskarri bat. Eta bukatzeko, 4. Giroan, ebakiak baizik ez.

Horietan guztietan aipagarriena 2. Giroa dugu, bertako aztarnak itxura batean baserriaren egungo banaketarekin zerikusia ez duten eraikuntza elementuetara eramaten baikaituzte. Eraikuntza elementu horien oinplanoak «L» formako egitura baten oinplanoa iradokitzen digu; agian espazio honetan dagoen kubetarekin izango du zerikusia.

Estratigrafiari dagokionez, orubearen bilakaera-erakuntza prozesuaren elementu bereizgarria baita bera, esan dezagun, gela bakoitzeko egungo zoladurak egokitzeko deposituak alde batera utzirik, aztarna guztiak estratu geologikoan eginak/kokatuak

Ahora bien, ¿se pueden interpretar todos los hallazgos? ¿Podemos identificar una evolución cronológica en ellos que nos marquen un comienzo y un progreso?

Si analizamos los ambientes intervenidos nos encontramos con que los restos hallados se circunscriben a la propia estructuración del caserío actual, con una única excepción, que se desarrolla más allá de las cuatro paredes del Ambiente 2. Contamos con el problema de una serie de cortes que estarían afectados por la cimentación del muro cortafuegos. Aquí habría que ver hasta qué punto esta afección es tal, pues justamente da la impresión de estar cortando justo escasos centímetros en sus cierres extremos. Y bien se dice «da la impresión», dado que al no evaluar el espacio al norte del muro cortafuegos es imposible determinar con seguridad su avance en esa dirección.

Esa circunscripción de los hallazgos a los espacios habitacionales actuales, siempre y cuando las zanjas de cimentación no hayan alterado resto arqueológico alguno, se acompaña en los Ambientes 1, 2 y 4, de la localización de la gran mayoría de evidencias en las partes centrales en toda su longitud. A esto hay que sumar que en los Ambientes 1 y 2 la topografía del nivel donde se hallan tales restos representa una superficie cóncava, coincidiendo las partes altas con la zona donde se cimentan los muros perimetrales este y oeste de cada una de esas habitaciones, y el fondo con el área donde mayor densidad de restos se encuentran. Este hecho puede ser fortuito pero resulta curioso.

En el caso del Ambiente 4, también se documenta el mayor número de evidencias en el eje longitudinal central, pero no así la segunda de las características en las que el nivel geológico dibujara una concavidad a lo ancho. También hay que objetar a este dato, pues lo que se encuentra en el Ambiente 4 es una regulación del nivel geológico con el fin de conseguir una superficie horizontal sobre la que levantar el suelo de tarima. Quizás este tipo de trabajo haya eliminado la posible concavidad que representara el sustrato geológico. No lo sabremos con certeza.

Interesante es la diferenciación de las evidencias según el área en el que estén. En el Ambiente 1 por ejemplo, las pocas que hay son de tipo corte y la llamada Estructura 1, que corresponde con una serie de pequeñas estacas que se alinean formando una figura ovalada. En el Ambiente 2, hay más diversidad, más estacas, agujeros de poste, y sobre todo algo que no encontramos en el resto: estructuras de apoyo cimentadas en cortes. En el contiguo Ambiente 3, dos estructuras de fuego bajo, solo dos agujeros -uno de ellos de estaca- y un poyo como base de un poste. Y por último en el Ambiente 4, únicamente cortes.

Destaca sobre todo ellos el Ambiente 2, dado que los restos nos llevan a elementos constructivos en el solar que no parecen relacionarse con la actual distribución del caserío. El dibujo en planta de ellas parece querer mostrar una planta de una estructura con forma de «L» y que quizás esté vinculada con la cubeta que se halla en este espacio.

En relación a la estratigrafía como elemento diferenciador del proceso evolutivo-constructivo en el solar, diremos, que salvando los depósitos que sirven

direla, denak bat izan ezik. Gainera, ez dago harreman estratigrafikorik hondakin arkeologikoen artean (ebakiak, elkarren arteko nahasketak). Hortaz, puntuak, ebakiak eta egiturak dauzkan oinplano horizontala dugu esku artean, eta horietan berezi beharra dago bilakaera kronologikoa.

Bilakaera hori ezin eskaini daiteke ikuspuntu material batetik. Hasteko, ez dagoelako datatzeko moduko materiala eskaintzen duen betegarririk ez depositurik ere, hots ez dago unitatea halako ziurtasunez datatzeko moduko zeramikarik edo metalezko pieza jakinik.

Indusketan zehar dokumentatu beharreko elementurik ezean, agerian utzitako aztarnen data zehaztu ahal izateko hormen egiturekin jarri beharko ditugu harremanetan, edo landare jatorriko depositu nahiz egiturak aztertu beharko ditugu helburua lortuko badugu.

Konklusioak

Oso bestelako emaitzak eskaini ditu aztertutako espazio bakoitzak, eta gehien-gehienak leku egiten dieten giroetara mugatzen direla ematen du. 4. Giroan beste espazioetan errepikatzen ez den zulo eta kubeten sorta dugu erdiko luzeranzko ardatzean; soilik 2. Giroan aurkitzen ditugu oinarritzeko egiturak eta paldo-zuloak; soilik 1. Giroan dokumentatzen dira erreten luze irregularrak edo 1. Egitura bezalako eraikuntza motak. Hau da, giro bakoitzak bat eta bakar edo, hobe esanda, berezi bihurtzen duen hondakin mota bat uzten du agerian. Salbuespen bakarra da giro guztietan erregistratzen direla hesolak, hori bai, gehiago dira 2. Giroan.

AMS bidez egindako erradiokarbonoaren bidezko datazioek ez dituzte leku honen inguruko arazo historikoak argitu. Datatzeko moduko lagin guztietatik batzuk berezi genituen, alde batetik bi lagin 1. Giroko ebakiak betetzen dituzten deposituetatik, eta bestetik hesola bat 2. Girotik.

Deposituen datazioek haien arteko harreman estratigrafikoarekin bat datorren kronologia eskaintzen dute, hots, XVIII. mendetik XX. mendera arteko arku kronologikoa eskaintzen dute. Hori bai, ebakiak noiz eginak diren argitu beharko litzateke. Aipatu mendeetan eginak litezke, baina baita lehendik ere.

Hesola-laginaren kasuan, eskainitako datak bat datoz, *a grosso modo*, deposituetako baten datarekin. Horrek agian esan nahi du harreman bat dagoela aztarna mota batzuen eta besteen artean, edo baserrian dauden hesolak ordukoak izan litezkeela. Aukera horiek hipotesi mailan baizik planteatzen ez baditugu ere, oso aukera subjektiboak diren arren, garrantzitsua da haiek aintzat hartzea.

Analisi kimikoen bidezko emaitzarik izan ezean, deposituren bat datatzen lagunduko ligukeen material atxikiaren gabeziaren aurrean, beste baserri batzuen tipologiarekin erkatzea baizik ez zaigu geratzen. Gertu samar dagoen Landetxo Goikoa baserria da (Mungia) guztietan ezagunena. Asteintza Nagusi baserria eraikitzeke eredutzat hartu bazuten ere, hartan ez zen

para la pavimentación actual de cada habitación, nos encontramos con que todas las evidencias están realizadas/ubicadas en el estrato geológico, con una única excepción. No habiendo, además, relaciones estratigráficas entre los restos arqueológicos (cortes, alteraciones de unos con otros). Eso nos dibuja un plano horizontal con puntos, cortes y estructuras en los que hay que diferenciar una progresión cronológica.

Esta progresión no es posible darla desde el punto de vista material. En primer lugar porque no hay depósitos de relleno que ofrezcan material susceptible de datar, léase cerámica o piezas metálicas determinadas que pudieran fechar con cierta exactitud esa unidad.

Ante esta falta de elementos a documentar en la excavación, la incierta datación de todo lo descubierto la debemos intentar sortear basándonos bien en las relaciones con las estructuras murales, bien en el estudio de los depósitos y estructuras de origen vegetal.

Conclusiones

Cada espacio intervenido ha ofrecido restos muy diferentes y la gran mayoría parece funcionar circunscribiéndose a los propios ambientes en los que se sitúan. Tenemos la seriación de agujeros y cubetas en un mismo eje central, longitudinal, del Ambiente 4 que no se repite en ningún otro espacio; la serie de estructuras de apoyo y agujeros de poste, igualmente localizados exclusivamente en el Ambiente 2; largas zanjas irregulares, o tipos de construcciones como pudiera ser la Estructura 1, solo documentadas en el Ambiente 1. Es decir, cada ambiente evidencia unos tipos de restos que lo hacen único, particular mejor dicho. La única salvedad con la que contamos es con la presencia de estacas en todos los ambientes, encontrando una mayor densidad en el Ambiente 2.

Las dataciones radiocarbónicas por AMS realizadas no han resuelto ninguno de los problemas históricos del enclave. De todas las muestras susceptibles de análisis para datación se han tomado por una parte dos de depósitos que rellenan cortes pertenecientes al Ambiente 1, y por otra parte a una estaca del Ambiente 2.

Las dataciones de los depósitos dan una cronología coincidente con la relación estratigráfica entre ellas, dando como marco cronológico entre los siglos XVIII al XX. Ahora claro está, habría que resolver la cuestión de cuando son esos cortes. Perfectamente podría ser de esos mismos siglos, pero también anteriores.

En el caso de la muestra de estaca, las fechas otorgadas coinciden, *a grosso modo*, con las de uno de los depósitos. Esto quizás quiere decir que hay una relación de un tipo de evidencias con otras, o que las estacas presentes en el caserío pudieran ser de estas fechaciones. Pese a que estas posibilidades sean meras suposiciones, altamente subjetivas, es importante dejarlas presentes.

Ante la falta de resultados a través de los análisis químicos, y también de la ausencia de material asociado que pudiera ayudar a datar alguno de los depósitos, únicamente podemos recurrir a la comparación tipológica con otros caseríos. El mejor conocido es el del cercano Landetxo Goikoa (Mungia). Si bien es el modelo sobre el que se levanta el caserío

etxola gisa definitutako bizitoki aldean behar zuen jatorrizko sukaldea aurkitu, horretan datza bien arteko alde nagusia.

Adierazitako guztia gogoan, bi dira Asteintza Nagusiaren historia eta errealitate estratigrafikoa ulertu ahal izateko azaldu beharreko aukerak:

- a) Agian Landetxo Goikoan garatzen hasi zen ereduaren ezarpenaren emaitza da eraikin hau, gutxi gorabehera 1540. urte inguruan eraikiko zuten, lehendik eta geuk aztertutako eremuan okupaziorik izan ez zela.
- b) Aztarna gehien-gehienak ezin datatu izan direnez eta baten bat antza bizitoki batekin baino gehiagorekin lotuta dagoela ikusirik, baliteke giroetan dokumentatutako unitate jakin batzuk baserriaren hasierako faseari edo hasierako garapen aldiari lotuta egotea, baina baliteke, era berean, baserria eraiki aurreko habitat baten espazioa marraztea.

Bukatzeko, ikuspuntu arkeologikotik sakonago aztertu beharra dago Bizkaiko baserria, halako premia dago. Erdi Aroko jatorriak eta gisa honetako etxebizitzak sortzeko prozesuak ulertarazten laguntzeaz gain, orain arte burututako esku-hartze arkeologikoetan dokumentatutako aztarnak –eta Asteintza Nagusi da aztarna horietako bat– ulertzen ere lagunduko liguke azterlan sakonago batek.

Asteintza Nagusi, la diferencia se encuentra en la no localización de la cocina primigenia, ubicada en un espacio de habitación que se definiría como cabaña.

Con todo lo expuesto dos son las posibilidades que cabría señalar para entender la realidad estratigráfica e histórica en Asteintza Nagusi:

- a) Que quizás esta edificación sea fruto de la implantación del modelo que comenzó a desarrollarse en Landetxo Goikoa, siendo su nacimiento en fechas que girarían en torno a 1540, sin que hubiera existido una ocupación previa en el enclave sobre el que se ha actuado.
- b) Que al no poder datar la mayor parte de las evidencias, y que alguna no parece vincularse exclusivamente a un espacio de habitación, se pudiera interpretar que determinadas unidades documentadas en los ambientes pertenecieran, no solo a la fase inicial o evolutiva del caserío, sino que también están dibujando un espacio de hábitat anterior a la edificación.

Concluyendo, habría que remarcar la necesidad de estudiar con mayor intensidad desde el punto de vista arqueológico el caserío vizcaíno. No solamente ayudaría a la comprensión de los orígenes medievales o a los procesos formativos de este tipo de viviendas, sino también a entender las evidencias documentadas en las intervenciones efectuadas hasta el momento, siendo el caserío Asteintza Nagusi una de ellas.

R. Rodríguez Calleja; J. C. López Quintana; A. Moreno Larrazabal

B.19.2. **Plentzia-Mungia ardatza eraikitzeako proiektua. II. fasea: Asteintza-Maruri errepidea**

Zuzendaritza: Juan Carlos Zallo Uskola
Finantzazioa: Herri Lan eta Garraio Saila.
Bizkaiko Foru Aldundia

B.19.2. **Proyecto de construcción del eje Plentzia-Mungia. Fase II: Carretera Asteintza-Maruri**

Dirección: Juan Carlos Zallo Uskola
Financiación: Dpto. de Obras Públicas y Transportes; Diputación Foral de Bizkaia

Results of the archaeological monitoring programme of the second stage of the Plentzia-Mungia route (the road from Asteintza to Maruri) which was assessed in May 2008. The work carried out has provided new elements for an understanding of Vizcaya's past history and archaeology.

2008ko maiatzean Igartua-Asteintza-Maruri (Bizkaia) errepidea eraikitzeako proiektuaren ebaluazio arkeologikoko azterlana, J.C. López Quintanak eta J.L. Ibarra Álvarezek idatzia, eman zitzaion Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Lan eta Garraio Sailari. «Plentzia-Mungia ardatzaren Trazaduraren proiektuaren Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioan» jasotako azterlan horrek honako neurri zuzentzaile hauek formulatu zituen:

- *Obrak zuzenean ukitzen duen Arkitektura Ondareari (Asteintza Nagusi eta Bidekurtzio baserriak) dagokionez:* a) landa eremuko arkitekturaren gaian aditua den profesional batek eraikin bien ezaugarriak eta osagaiak ebaluatuko ditu elementu horien interes zehatza mugatzeko, beren historia ezaugarritzeko adierazgarrienak diren alderdiak zein diren adierazteko eta eraikin horietan gorde-

En mayo de 2008, se entregó al Dpto. de Obras Públicas y Transportes de la Diputación Foral de Bizkaia un estudio de evaluación arqueológica del proyecto de construcción de la carretera Igartua-Asteintza-Maruri (Bizkaia), redactado por J.C. López Quintana y J.L. Ibarra Álvarez. Este estudio, incorporado a la «Evaluación de Impacto Ambiental del Proyecto de Trazado del eje Plentzia-Mungia», formuló las siguientes medidas correctoras:

- *En cuanto al Patrimonio Arquitectónico afectado de forma directa por la obra (caseríos Asteintza Nagusi y Bidekurtzio):* a) la evaluación, por profesional competente en materia de arquitectura rural, de los componentes y características de ambas edificaciones a fin de determinar el interés preciso de tales elementos, señalar los rasgos